

AZALERA HANDIETAKO ETA ELIKADURA KATE HANDIETAKO MERKATARITZA INDIZEA. 2021EKO MAIATZA

Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak % 5,8 gehitu dira maiatzean


2021eko lehenengo bost hilabeteetako metatuan, salmentak % 4,1 igo ziren

Eustatek landutako datuen arabera, 2021eko maiatzean, Euskal AEko merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentek % 5,8ko urte arteko igoera izan dute, prezio finkoetan. Aurreko hilaren, 2021eko apirilaren, aldean, ordea, salmentak % 0,7 jaitsi dira.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizearen urte-arteko aldakuntza-tasa.

(%)

Jaiegunen eraginetatik zuzendua. Prezio finkoak



Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

2020ko maiatzaren aldean, elikagaien salmentek azalera handietan eta elikadura-kate handietan % 6,7 egin dute behera aurtengo maiatzean. Gainerako artikuluen kasuan, igoera nabarmena dago oraindik, aurreko hilean baino neurri txikiagoan hala ere: % 51,0.

Portaera askotariko hori eta bere magnitudea ulertzeko, kontuan izan behar da ezen COVID19aren pandemiari aurre egiteko martxoaren 14ko alarma-egoerari buruzko dekretuaren ondoren murrizketek eragin desberdina izan zutela elikagaien eta gainerako produktuen salmentan.

Lurraldeka, Araban izan da salmenten urte arteko igoerarik handiena (% 9,0), gero Bizkaian (% 8,1) eta azkenik, apalago, Gipuzkoan (% 0,7).

Azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmentak, 2021eko maiatzean, aurreko hilaren aldean, % 1,7 jaitsi dira elikagaietan, baina ez gainerako produktuetan,

% 1,3 igo baitira. Hilabete arteko salmentek neurri berean egin dute behera hiru lurraldeetan (% 0,7).

2021eko urtarril, otsail, martxo, apiril eta maiatzeko metatuan, merkataritza-azalera handietako eta elikadura-kate handietako salmenta-indizeak goranzko joera izan du, eta % 4,1era iritsi da aurreko urteko aldi metatuaren aldean. Joera hori gainerako produktuen salmenten bilakaerari zor zaio, 2020ko aldi metatua baino % 26,2 gehiago; izan ere, elikaduraren kasuan, maiatzera arte metatutako salmentak % 3,2 jaitsi dira.

Lurraldeka, urte honetan zehar metatutako aldakuntza positiboa izan da Araban (% 7,2) eta Bizkaian (% 5,9), baina Gipuzkoan, aldiz, negatiboa izan da (-% 0,7).

Azkenik, Euskal AEko azalera handietako eta elikadura-kate handietako langile-kopurua % 5,1 gehitu da 2021eko maiatzean aurreko urteko hil beraren aldean, eta % 1,6 berriz, 2021eko apirilaren aldean. 2021eko lehendabiziko bost hilabeteetako metatua ere % 1,7ko igoera ikusten da.

Euskal AEko azalera handi eta elikadura kate handietako merkataritzaren indizea.
Urte arteko eta hile arteko aldakuntza-tasa. Maiatza 2021 (p)

	PREZIO FINKOAK		
	m / m-12	m / m-1	A (m) / A (m-12)
INDIZE OROKORRA lurralde historikoaren arabera			
Euskal AE	5,8	-0,7	4,1
Araba/Álava	9,0	-0,7	7,2
Bizkaia	8,1	-0,7	5,9
Gipuzkoa	0,7	-0,7	-0,3
INDIZE OROKORRA sektorearen arabera			
Elikagaiak	-6,7	-1,7	-3,2
Beste produktuak	51,0	1,3	26,2
ENPLEGU INDIZEA			
Euskal AE	5,1	1,6	1,7

(p) behin-behineko datuak

m / m-12 Urte arteko aldakuntza. Egutegiaren eragina zuzendutako datuak

m / m-1 Hile arteko aldakuntza. Datu desestazionalizatuak

A(m)/A(m-12) Urtariletik oraingo hilera arte metatutako urte arteko aldaketa-tasa, aurreko urteko aldi beraren aldean

Iturria: Eustat. Merkataritza indizea azalera handietan eta elikadura kate handietan-AHEK

INFORMAZIO OHARRA

Urte arteko aldakuntzak kalkulatzeko, egutegi-eraginik gabeko serie zuzenduak erabiltzen dira, eta hil arteko aldakuntzak kalkulatzeko, urtaro-eraginik gabeko serieak.

Indize ekonomiko koiuntural honetan eta beste indize ekonomiko koiuntural batzuetan kontuan hartzen diren langile enplegatuen artean, Enplegua Aldi Baterako Erregulatzeko Espediente (EABEE) duten pertsonak sartzen dira, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Methodology of Short Term Business Statistics](#) eskuliburuan jasotzen duen enplegatuaren definizioari jarraituz.

Egutegiaren eraginak zuzentzeko eta serieak urtaro-eraginik gabe uzteko erabilitako modeloek COVID-19ak aztertutako aldagaletan duen eragina barne hartzen dute, Europar Batasuneko Estatistika Bulegoak (Eurostat) [Guidance on Time Series Treatment in the context of the COVID-19 crisis](#) ohar metodologikoan emandako gomendioei jarraituz.

Eustatek eskerrak ematen dizkie Azalera handietako eta elikadura-kate handietako merkataritza-indizea egiten lagundu duten establezimendu guztiei. Haiei esker, maiatzeko indizea laginaren % **97,5eko estaldurarekin** kalkulatu da –informazio hori ekainean gaindi jaso da–.

Informazio gehiagorako:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa-zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tlf: 945 01 75 62